

LUTXANA - ENEKURI

Bilbo eta Erandio artean dago Lutxana eta historian zehar ere udalerrri batetik bestera ibili da.

Ezaguna da Lutxanako guda, Lehen Karlistadako gudarik garrantzitsuenetakoa. 1836ko abenduaren 23tik 24ra. Guda horretan aurrez aurre egon ziren, alde batetik karlistak eta, bestetik, Bilboko Lehen Setioa deitutakoaren askatzaileak.

Lutxana auzoa ibaiaren bestaldera ere hedatzen da, Barakaldora hain zuzen ere. Lutxana auzoan, alde batean zein bestean, dorretxe bana izan ziren kate batez lotuak Bilboko itsasadarra, Ibaizabal ibaia alegia, babesteko. Aiala kantzilerrak eraiki zituen XVI. mendean eta Barakaldokoak gaztelu itxura zuen.

Bitxia da 1923ko dokumentu hartan zinegotziek **Lutxanaren** ordez **Ikoeta** izena erabiltzeko egin zuten eskaera, baina dokumentuetan ez da halako toponimorik jaso, eta herritarren memorian ere ez da halakorik gorde.

Lutxana es un barrio situado entre Bilbao y Erandio que ha cambiado varias veces de municipalidad durante su historia.

Es conocida la **Batalla de Lutxana**, una de las batallas más decisivas de la Primera Guerra Carlista. Tuvo lugar la noche del 23 al 24 de diciembre de 1836. En dicha batalla se enfrentaron, de un lado, los sitiadores carlistas y del otro, los libertadores del denominado Primer Sitio de Bilbao.

Lutxana se extiende también al otro margen de la ría, a Barakaldo. En el barrio de Lutxana, había dos casas-torre, una a cada lado de la ría, unidas con una cadena. Fueron construidas en el siglo XVI por orden del canciller Ayala para proteger la ría. La casa-torre de Barakaldo tenía forma de castillo.

Por otra parte, es curiosa la petición realizada por diversos concejales en el documento de 1923, mencionado anteriormente, para utilizar el nombre de **Ikoeta** en lugar de **Lutxana**, puesto que dicho topónimo no se ha documentado, ni tampoco se ha conservado en la memoria popular.

Plaiabarri

Bizilagun gutxi dituen auzoa da gaur egun, eta bertan zeuden baserri zaharrak desagertu egin dira. Plaiabarri euskal toponimoa izanik (plaia eta barri hitzez konposatua) euskal grafiaz idatzi behar da. Plaia gaztelaniazko etimoa duen arren, mailegua da euskaraz; hortaz, **Plaiabarri** idatzi behar da, ez *Playabarri*.

Plaiabarri auzoa ibaia-
ren bi aldeetan zabal-
tzen da, eta hitzunek alderdi bakoitza izen batekin ezagutzen dute: bata **Saratseta** (ahoz *Satsetas*), bertako baserri zahar baten izenagatik; eta bestea, **Cestería**.



Actualmente es un barrio con pocos habitantes, y todos los viejos caseríos que se encontraban allí ya han desaparecido. Puesto que el nombre Plaiabarri es un topónimo en euskera –compuesto por las palabras *plaia* (playa) y *barri* (nueva)– debe escribirse con la grafía vasca. En ese sentido, aunque el étimo de *plaia* es castellano, se trata de un préstamo en

euskera; por tanto, debe escribirse **Plaiabarri**, no *Playabarri*.

El barrio Plaiabarri se extiende a lo largo de ambos márgenes del río, y los hablantes conocen por un nombre diferente cada una de las márgenes: una de ellas es **Saratseta** (oralmente, *Satsetas*), por el nombre de un caserío de los alrededores; y la otra **Cestería**.

Sanpablomendi (*San Bernabe, Montecabras*)

Aipamen berezia eskatzen du Enekuriko Sanpablomendik, gaur egun **San Pablo** izen soilaz ezaguna. Batzuek **Montecabras** izena ere ematen diote, baina hau itsasadarren gaineko zatiari dagokio. Dokumentazio zaharrak argi erakusten digu **Sanpablomendi** dela jatorrizko izen osoa, izan ere dokumentuetan gaztelaniaz idatzi arren, **Sanpablomendi** euskarazko generikodun toponimo osoa idazten zuten. Udal agiritegietan horrela jasotzen da XIX. mende osoan eta 1920. urtera arte.

Toponimo honen jatorria inguruko tontor batean dagoen **San Bernabe** adbokezioko ermita da; izan ere ermita honen jatorrizko adbokezioa San Pablo zen, gerora aldatu bazuten ere. Hori dela eta Sanpablomendiri San Bernabe ere esaten diote, baina ermita bera dagoen tontorrari esan behar zaio San Bernabe, ez besteri.



El topónimo Sanpablomendi merece una mención especial. Situado en Enekuri, actualmente se conoce por el nombre de **San Pablo**, aunque algunos también usan el nombre **Montecabras** para denominarlo, aunque este nombre corresponde a la zona situada sobre la Ría. La documentación antigua nos demuestra que el topónimo original completo es **Sanpablomendi**, puesto que a pesar de aparecer en documentos redactados en castellano, se recogía el topónimo en euskera **Sanpablomendi**, con el genérico **-mendi** añadido al nombre propio. Asimismo, en el archivo municipal aparece de la misma forma durante todo el siglo XIX y hasta el año 1920. El origen de este topónimo está en una ermita cercana bajo la advocación de

San Bernabe; de hecho, la advocación inicial de la ermita estaba dedicada a San Pablo, si bien se cambió posteriormente. Por ello, a Sanpablomendi también le llaman **San Bernabe**, pero esa denominación solo es válida para la cima en la que se encuentra la ermita, no para el conjunto del monte.

Lutxana-Enekuriko etxealdeak mendez mende Caseríos de Lutxana-Enekuri a lo largo de los siglos

XVII. MENDEKO ETA LEHENAGOKO ETXEAK

CASAS DEL SIGLO XVII Y ANTERIORES

XVIII. MENDEKO ETXEAK

CASAS DEL SIGLO XVIII

Enekuribarri
Enekurizarra *

XIX. MENDEKO ETXEAK

CASAS DEL SIGLO XIX

Enekuribarribekoa *
Enekuritxikerra *
Palomera *
Pasajebarria *
Plaiabarri *
Polboretxe *
Sakoni *
Saratseta
Zuhatzu *

XX. MENDEKO ETXEAK

CASAS DEL SIGLO XX